

Ordizia

2

GURE HERRIAREN ERALDAKETA



Hara kattalin,
gure garaiko
Ordizia eta
trena!

Bai,
entzun ongi
eta gogoan izan:
atzeak erakusten
du aurrea nola
dantzatu

Zenbat
aldatu den!
kontatu aitona.
Marabara,
maraberi...



ATZEAK ERAKUSTEN DU AURREA NOLA DANTZATU

KAIIXO BERRIRO!

Zera... Nik, ba... 'Ongi etorri!', horixe esan nahi dizuet ezer baino lehen. Aurreko liburuan elkarren berri izateko aukera eduki genuen, baina batez ere gure herriaren jatorria ezagutzeko zortea. Eta, intxaur baten antzera, nola sortu zen muino batean, harresi batek inguratuta.

Amona Agedaren esaera da: 'Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu', alegia, lehenaldia ezagutzeak erakutsiko digu nola jokatu etorkizunean, akatsak errepikatu gabe eta, ahal dela, historiako alderdi onak kontuan hartuta.

Marik sekretuka esan izan dit, lehen, atze-atzera joanda, euskaldunok Eguzkia eta Ilargia Amalurraren alabatzat genituela. Eta Eguzkiak, egunsentian, dantza egiten zuela ekainaren 23an, San Joan bezperan alegia. Pertsonak ere Amalurraren seme-alabak gara, eta arreta handiz entzun behar ditugu gure aurretik bizi izan zirenen bizipenak eta istorioak. Eta Amalurra behar bezala zaindu, gure arbasoen agindua balitz bezala. Harrigarria da, baina egunen batean gu gerori izango gara guraso, gu gerori arbaso...

Berriro ere animatuko al zarete nirekin historian atzera egiten? Ikusi nahi al duzue intxaur hura nola puskatu zen? Harresia desegin, eta herria nola zabaldu zen? Elkarrekin, gure iraganaren alde onak eta txarrak ezagututa, hobeto egingo dugu aurrera, hobeto egingo dantza gaur egun eta etorkizunean...



BAIETZ ASMATU!

Sei argazki hauek ikusita, zeintzuk dira unitate honetan landuko ditugun gaiak?



Gaia:

Gaia:



Gaia:



Gaia:



Gaia:




ORDIZIAKO OSASUN-ZENTROA



Gaia:

Aitona Peru eta Kattalin lehenaldiaren zurrunbiloan



urreko asteazken batean, aitona Peru, Bixkor txakurra eta hirurok azokara jaitsi ginen.

—Ezagutzen al duzu Mari...? —hasi zitzaidan aitona, eta ni pixka bat harritu nintzen, baina galdera osoak berehala lasaitu ninduen—.

Ezagutzen al duzu Mariaratsaldea? —Eta buruaz ezezkoa egin nionez, honela jarraitu zuen—. Gaur ezagutuko dugu ba, eta hortik inguratuko gara plazara.

Lehenago errota egondako tokia erakutsi zidan aitonak, eta erreka aldera jaitsi ginenean galdezka jarraitu zuen. Eta jolasean:

—Errekako hiru andre dira: aurrenekoak ‘goazen’ dio; bigarrenak ‘egon gaitezen’ eta hirugarrenak ‘jolas gaitezen’. Nik papaita, zuk papaita: nortzuk dira?

—Itxoin, itxoin, emadazu denbora pixka bat — eskatu nion, erantzuna begien aurrean nuelakoan; eta buruan hazka ibili eta gero, pozaren pozez atera zitzaidan—: Badakit, badakit! ‘Goazen’ dioena ura da, ‘egon gaitezen’ dioena harria, eta hirugarrena amuarraina: ‘jolas gaitezen!’.

—Primeran, Kattalingorri! Zu etxerako! —esan zidan aitonak—. Historia ere ura bezalakoa da, eta joan, joan, beti joan doa, azkar demonio joan ere... —Eta aitona Peru uraren antzera joan zitzaidan, atzera, oso atzera, haurtzarora—. Gogoan dut, ezbehar batean, gizon bat itsu geratu zela. Baina arrantzale amorratua izan, eta inguruetako erreketara joaten jarraitu zuen, arrantzan egitera. Eskuekin aritzen zen: eskuak uretan sartu, harriak poliki ukitu, kontu haundiz haztatu, eta, halako batean, zasta!, harria altxatu, eta beste eskuaz amuarrain ezkutatua ateratzea lortzen zuen. Hamaika ikusteko jaio garela esan zuenak ez zuen arrazoi falta.

Konturatu gabe Mariarats errekek Oriarekin bat egiten duen lekura iritsi ginen. Malkaskoko zubitik Aralarko ikusmira zoragarria ageri zen, baina aitonak behera begiratzeko esan zidan, ibaira. Kontatu zidan, garai batean, Orian arrantzan ibiltzen zirela, edo igerian; baina, gerrarekin aurrena eta industrializazioarekin hurrena, aldaketa handia izan zela, eta gure ondarea hondatzen hasi ginela...

—Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu —xuxurlatu nuen, amona Agedaren esaera gogoan, baina aitona gor samarra izan, eta ez zidan entzun.

—Jendea errekan iman handi batzuekin sartzen zen, fabrika haunditik —aitonak horrela esaten dio CAF lantegiari— uretara botatzen zituzten burdin zatiak jasotzera eta gero txatartegian saltzera. Gerran galdu edo



IPUINA

botatako pistolaren bat ere topatu, eta goardiei ematera joaten ginen ziztuan. Pobrezia handiko egunak izan ziren, estraperloarenak, eta gorriak eta beltzak ikusi genituen orduan...

Aitonak esandako gauzen artean, bat izan da bereziki harritu nauena: gerrak, iraun, hiru urte iraun zuela, baina horren ondorena luze baino luzeagoa izan zela, 40 urteko gainbehera gogorra... Sobra ere, orain trenak egiten dituen lantegian, gerra garaian armak ere egiten zituzten.

Ordiziako ingurumaria erabat desberdina zen, nonbait: gaztainadiak zeuden, sagastiak eta artasoroak, eta baita garia ere! Eta, jakina, batez ere udazkena zen desberdina, ur garbietan islatuko ziren udazkeneko koloreak.

—Gu, noski, umetan sagarrak edo pikuak hartzera joaten ginen, eta kaminu jeneralean —aitonak horrela esaten dio errepide nagusiari— ibiltzen ginen jolasean, autoak-eta oso noizean behin pasatzen zirelako... Gero pinua sartu zuten eta paisaia erabat itsusitu zen. Dirua ematen zuen, azkar, baina lurrari ere kalte haundia eginda. Nik uste gizakiok ere itsutu egin ginela eta ez genuela ikusi nahi izan naturan egiten ari ginen txikizioa. Beste batean, Seattle buruzagi indiarren berri emango dizut...

Aitona Peruren bizitza ere guztiz aldatu zen. CAF-en lanean hasi zenean, artaldea saldu, eta ardi buru bakar batzuk utzi zituen baserrian. Hala ere, berak dio artzain izan denak sekula ez diola uzten artzain izateari, horretan ez dagoela erretiroa hartzerik.

—Lehenago eguzkia zen gure neurria eta ordularia, baina gero fabrikako adarra izan zen. Tuuuuu...! Eta hango egitekoak bukatuta, baserrira itzuli, eta hemengoetan hasi behar. Latz egiten genuen lan.

Aldatu zen paisaia, aldatu zenez, baina baita giza paisaia ere: Goierri, Euskal Herriko bailara asko bezala, industrializazio boladan sartu zen eta, langile faltan, jende asko etorri zen lan bila, beste hizkuntza eta kultura batekin. Euskaldunok lehenago ere ibiliak ginen, Ameriketara esate baterako, baina oraingoan hona etorri ziren. Eta haientzat etxeak behar, eta Ordizia ikaragarri hazi zen. Herrigunea txiki geratu, eta, aitona Peruk dioen bezala, bereziki 60ko hamarkadan suertatu zen aldaketa: Buztuntza, Oteginia, Altamira auzoak eraiki ziren...

—Hala ere —esan nion, andereñoaren esana gogoan—, Etxezarreta kalean, oraindik ere Erdi Aroko harresiaren hondakinak ikus daitezke.

—Zu etxerako, Kattalingorri, zu etxerako —esan zidan berriro ere, baina ordurako plazara iritsi, eta aitonak artzain lagun bat ikusia zuen.

Patxi Zubizarreta

Marratzu orri zuri batean ipuin honek iradokitzen dizuna.




Gogoratzen al duzu nolakoa zen Ordizia Erdi Aroan? Oraingoa, berriz, zein desberdina den, ezta? Gure herria etengabe ari da aldatzen. Agian zuk ez dituzu aldaketa asko nabaritu, baina zure guraso eta aitona-amonek seguru baietz. Mendetan iraundako hiribildua suntsitu egin zen, eta gizakiak naturguneak bereganatu zituen. Industrializazioarekin batera herria alde guztietara zabaldu zen.



DABILEN HARRIA,

ORDENEAN EMAN

Hona hemen gure herriaren eraldaketan eta bizimoduan eragina izan duten zenbait gertaera. Konturatzen bazara, nahastuta daude kronologikoki. Lotu bakoitzari argazkia, eta ordenean jarri (testu eta argazki bakoitzari zenbaki egokia idatziz)



1868: Trena etorri zen.

Ingalaterran lurrin makina asmatu ondoren etorri zen trenbidea Euskal Herrira. 1868an pasatu zen lehen trena Ordiziatik. 1900ndik aurrera geltokia izan zuen.



1927: Herri Antzokia.

Kultur ikuskizunetarako aretoa izatea biziki eskertu zen garai hartan Ordizian. Gizarte modernoaren ezaugarrietako bat zen gainera, eta Domingo Unanue arkitektoak garaiko moda arkitektonikoaren arabera diseinatu zuen.


1904: Euskal Jaiak.

Irailaren 15etik 20ra ospatu ziren lehen aldiz, eta arrakasta eta oihartzun handia izan zuten; trenak jendez beteta heldu ziren Ordiziako Euskal Jaietara. Kultura, literatura, kirol edota musika ospakizunak egin ziren egun horietan, eta baita nekazaritzari eta abeltzaintzari lotutako ekintzak ere.

DABILEN HERRIA

1960-1970: herriaren hazkundera.

Bi hamarkada horietan industria asko hazi zen gure herrian eta, ondorioz, herria zabandu eta kale eta auzo berriak eraiki ziren. Langileentzako etxebizitza blokeak egiten hasi ziren: Aita Urdaneta auzoa izan zen lehenengoa, 1950ean. 1960ko hamarkadatik aurrera eraiki ziren Buztuntza, Otegienea eta Altamira.



1850: Errepide berriak.

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran errepideak berri ziren Euskal Herri osoan. Ordizian Mariaratseko zubitik Urdaneta kalera, Kale Nagusira eta Filipinak kalera zihoan errepidea egin zen. Mandoek tiratuta diligentziak pasatu ziren lehenik, eta Sujetoenea etxea zen haien geltoki. Gero etorri ziren autoak, ehuneko 20 kilometroko abiaduran. 1924an ireki zen lehen gasolindegia, Urdaneta kalean.

1925: Plaza estalia.

Plaza Nagusia handitu egin zen eta estali ere bai, batez ere asteazkeneroko azoka babesteko.



1894: Arboleda.

Garraiobideak hobetu ahala, lehen lantokiak sortzen hasi ziren gure herrian. Makinak sartu eta esku-langintza gutxitzen hasi zen. Paisaiaren aldatzea eta kea ekarri zuten fabrikek eta, horregatik, biztanleek pentsatu zuten garrantzitsua zela herrian parkeak eta ibiltokiak izatea, eta Arboleda egin zen asmo horrekin.



1936: GERRA ERE ETORRI ZEN...





... ETA GERRAREKIN,

SUFRIMENDUA

1936ko uztailaren 29an soldadu frankistak Ordizian sartu ziren. Fusilez, pistolaz eta ehizako eskopetaz hornituta zeuden, eta metrailadore bat eta mortero bat zituzten. Egun hartatik aurrera, urte gogorak bizi izan ziren Ordizian bezala Euskal Herri osoan ere.

Zuk dakizunaren edo entzun duzunaren arabera, ze hitzekin lotuko zenuke gerra?

.....
.....
.....
.....
.....

Gerrak urrutiko edo aspaldiko kontuak direla iruditzen zaigu askotan, baina zure aitona-amonek bizi izan dituzte gerraren ondorio latzak. Entzun al diezu zerbait?

.....
.....
.....
.....
.....



1936ko gerraren ondorioz, zure adineko neska-mutiko asko beste herrialde batzuetara bidali zituzten, askotan bakarrik. Badakizu nora? Badakizu zergatik?



.....
.....
.....
.....
.....





GERNIKA

Mundua aho zabalik utzi zuen bonbardaketa 1937ko apirilaren 26ko arratsaldean izan zen, Gernikan. Lau eta erdietan Santa Maria parrokiako ezkilak gogotik entzun ahal izan ziren. Aurreko asteetan Bizkaiko herri askotan entzun zen mezu berbera adierazten zuten kanpaiek: bonbardaketa. Herritarrak, merkatu eguna zen horretan, ziztu bizian abiatu ziren hala moduz

eraikitako babeslekuetara. Herriak pairatzen zuen lehen gerra esperientzia zen, ordura arte ez baitzen Gernikaren kontrako aire erasorik izan.

40.000 kilo leherkari jaurtiki zituzten hegazkin alemanek, gehienak su emaileak. Biktimen zenbaketa bereziki zaila gertatu zen. Gaur egun badakigu hildako ugari egon zirela eta horien artean gehienak umeak izan zirela. ‘Salba ditzagun haurrak!’, horixe zen guztien ahotan zebilen leloa.

(Iñaki Egañaren “1936ko Gerra haurrei kontatua”)



AZTERTU

Picassoren

Guernica obra ezagunak bonbardaketa kontatu zuen irudi bidez. Azal ezazu koadroko elementuek zer adierazten duten.

Adibidez, eskuineko pertsona itxurako figurak besoak zerura luzatuta ditu, bonbardeaketa gelditzeko eskatzen ariko balitz bezala.





ORDIZIA: ORIA ERTZEKO HERRIA

Gipuzkoako


lurraldean dago Ordizia, Goierriko eskualdean eta Oria ibaiaren ibarrean. Kokalekuak eta gertaera historikoek eman diote gaur egun duen itxura. Ibai horren bazterrean egoteak —mendi artean, baina ongi komunikaturik— eta hiribildu gisa izan duen jatorriak nortasun berezia eman diote herriari. Hiriguneak eta baso, zelai, soro, baserri eta erreka batzuek osatzen dute Ordizia. Udalerrria luzanga da formaz, iparraldetik hegoalderantz doa eta 5,7 kilometro karratuko azalera du.



GEZURRA
BADIRUDI ERE,
GOIERRIKO
TXIKIENETAKO BAT DA;
IZAN ERE, ARAMA ETA
ALTZAGA BESTERIK EZ
DIRA ORDIZIA BAINO
TXIKIAGOAK.



HEMEN HIRU MAPA
DITUZU: EUSKAL
HERRIKOA,
GIPUZKOAKOA ETA
GOIERRIKOA. ZEIN
DA ZEIN?



**GOIERRIKO MAPAN
KOKATUKO AL ZENUKE ORDIZIA
DAGOKION TOKIAN?**

**OSATU
MAPAK**


- EUSKAL HERRIKOAN JAR ITZAZU PROBINTZIA GUZTIEN IZENAK.
- GIPUZKOAKOAN IDENTIFIKA EZAZU GOIERRI ESKUALDEA.
- ETA GOIERRIKOAN, BERRIZ, ZEIN DA ORDIZIA?

EZETZ ASMATU!

Ba al dakizu zein herrik osatzen duten Goierriko eskualdea? Azpimarra itzazu. Zerrenda hauetako lau herri ez daude Goierri, zeintzuk ote dira?

Alzaga	Idiazabal	Ormaiztegi
Andoain	Itsasondo	Segura
Arama	Lazkao	Tolosa
Ataun	Legorreta	Zaldibia
Beasain	Legazpi	Zegama
Gabiria	Mutiloa	Zerain
Gaintza	Olaberria	Zumarraga
	Ordizia	

Ardia eta amuarraina



itonarekin Mariaratsaldea ezagutu eta gero, beste batean ere hurbildu nintzen bertara. Bixkor txakurrekin eta artaldearekin. Artaldea bazkatzen lasai arraio zegoela ikusita, erreka aldera jo nuen. Eta nire atzetik Bixkor, eta... Gogoratzen al zarete Mari jainkosarengana eramán ninduen ardi galduaz? Gogoan al duzue jarri nion izena? Primeran! Bai, asmatu duzue! Bada Bertangoxo ere gurekin etorri zen.

Ni Bixkorrekin eseri nintzen batean, ardia Mariarats errekará hurreratu, eta hizketan sumatu nuen... Zerbait entzungo bagenuen, isilka-misilka hurbildu behar izan nuen —amona Agedak jakinluzea eta *kurioseá* esaten dit—. Eta, hara non, ardia amuarrain batekin ari zela konturatu nintzen!

—Pozik nago, oso pozik. Berriro ere Oriako uretan egin ahal izango dut igeri! —ari zen arraina—. Orain dela urte asko Mariaratseko urlaster garbi hauetan babestu behar izan nuen,

eta ezin uka bertan goxo egoten dela, baina ibai zabal batean igeri egitea bezalakorik ez dago, nahi adina lekurekin! Zigor handia izan da urtetako zikinkeria eta ezin bizia. Banuen gogoá lasai arraio eta sigi-saga ibiltzeko. —Arrazoi duzu. Murumendi aldetik beegiratuta, Oriako ura erabat kutsatuta ikusten zen: batean kafesne kolorearekin, beeeanean gorria, plastikoak, trasteak... Baina kontuz ibili beeharko duzu. Garbitasunarekin etorri diren lertxunak edo ubarroiak edo bisoiak zu irensteko irrikaz egongo dira.

—Badakit horiei ziria sartzen eta ixkin egiten! A ze gogoá dudán berriro ere nire betiko paisaia ikusteko.

—Aldaketarako prest egon beeharko duzu ba: errotarik ez, baratze gutxiago eta lantegi gehiago topatuko duzu; eta presak, eta askoz ere etxe gehiago bazterretan, zerurainoko etxeak. Trenbideko zubiak beetiko lekuan jarraitzen du, baina Buztuntza auzoan zubi beerri batek harrituko zaitu... Ordizia oso desbeerdin ikusiko duzu. Baina Oriak Orioraino joaten jarraitzen du, gero! Itsasoraino...



—Lamia bat! —oihukatu zuen amuarrainak nire aldera begira, eta zulo batean ezkutatu zen. Eta ardiak niregana begiratu zuen, eta nik atzera begiratu nuen. Baina ni nintzen, sobra ere, amuarrainak ikusitako lamia —amona Agedak ere nere lamiatxoa esaten dit...

—Goazen, Bertangoxo —agindu nion ardiari ogi pusketa bat erakustearrekin batera—. Aitona-amonak zain izango ditugu.

Patxi Zuluazarreta





IPUINA



ILUSTRAZIO BILA



Lau irudi hauetatik zeinek ilustratzen du ondoen irakurri duzun ipuina? Zergatik? Zerbait falta al da bertan?





GURE IBAI ETA ERREKAK

Ba al dakizu non sortzen diren gure ibaiak? Eta non amaitzen diren? Begira, ibaiak erreketako ura jasotzen dute; eta errekek, berriz, errekastotakoa. Errekastoak mendi tartetean euri-ura pilatzen denean sortzen dira eta erreketara joaten dira. Errekak, berriz, ibaietara; eta ibaiak, azkenik, itsasora.



Oria da gure ibai nagusia. Non du iturburua?

.....
.....

Zein herritatik pasatzen da?

.....
.....

Non itsasoratzen da?

.....
.....

Zenbat kilometroko luzera du?

.....
.....

ORDIZIAK HONAKO HERRIOKIN EGITEN DU MUGA

Iparaldean Itsasondorekin
San Joan errekek eta Oria ibaiak bereizten dituzte bi udalerrriak.

Ipar-ekialdean Aramarekin
Oria ibaia eta Amundarain erreka dira muga hor.

Hego-ekialdean Zaldibiarekin
Amundarain erreka ere bada muga.

Hegoalderago Lazkaorekin
Senpere erreka da muga.

Mendebaldean Beasainekin
Mariarats erreka da muga.



Askotan, herriek elkarrekin muga egiteko, errekatxo batzuk nahikoa dira. Koka itzazu mapa honetan hemen deskribatutakoak.



ZURE USTEZ....

Amundarain erreka aipagarria da; izan ere, inguruan bisoi europarra ikusi izan da eta, bai horrexegatik bai errekek basoaren barnean duen egoera bereziagatik, babestutako eremua da. Zer esan nahi ote du horrek?



OKERRAK ZUZENDU



Hona hemen bisoi europarrari buruzko hainbat datu. Bere itxura, ohiturak, habitata eta elikadurari buruzkoak dira. Denak ez dira, ordea, zuzenak. Azpimarra itzazu okerrak.

Desagertzeko arrisku larrian dago. Garai batean Erdialdeko Europa osoan zabalduta zegoen.

Haragijalea da. Batez ere arrainak, ugaztun txikiak eta hegaztiak jaten ditu. Baita anfibioak, narrastiak eta intsektuak ere. Azken ikerketek argitu dutenez, zabor-ontzietan aurkitzen dituen txokolatzeko gailatekin osatzen du dieta.



Bakartia eta harrapatzen zaila da; ilunabarrean eta gauean ibiltzen da ibai, erreka, ubide eta paduretan.

Ugaztuna da. Ur-ipurtatsa ere esaten zaio euskaraz.

45-60 cm.ko luzera du, buztana barne.

Arra emea baino handiagoa da. Emeak kilo erdi inguru pisatzen du.




Bere kumeak artasoroetan uzten ditu baserritarrek haz ditzaten.

Orban zuri bana du ahoaren goialdean eta behealdean. Kolore marroi iluna, ile motza, gorputz luzanga eta hanka motzak ditu.



**ZER
DA?**

NIK ETA NIK BEZALAKO BESTE ARRAIN BATZUK
IBAIAN BIZI AHAL IZATEKO UR GARBI, OXIGENATUA, ETA
FRESKOA BEHAR IZATEN DUGU; BAINA LANTEGIEK, GIZAKIEK...
SORTZEN DUTEN KUTSADURAK HORI GALARAZI EGITEN DUTE.
EZIN, IGARKIZUNEAN BEZALA, URETAN JOLASTU. HORRETTARAKO
ZENBAIT TOKITAN, LEGORRETAN BERTAN,
UR-ARAZTEGIAK
DAUDE.



Ba al dakizu zer den ur-araztegia? Aurkitu informazioa eta idatzi hemen.

.....
.....
.....
.....
.....

UHOLDEAK



Tximistaneko zubia, 1953an.



Tximistaneko zubia, gaur egun.

Ordizian izan ditugu uholdeak; aipagarrienak 1953 eta 1983koak izan ziren. Zergatik gertatzen ote dira, ordea? Ba al dakizu Ordizian non egin izan duen urak gainezka?



.....
.....
.....
.....
.....

BASERRIAK

Ordiziak ez du inoiz baserri kopuru handia izan. Batzuk desagertu egin diren arren, horiek egondako orubeetan baserriaren izeneko etxaldeak sortu dira: Majori eta Altamira esaterako. Beste batzuek, ordea, erabat galdu dute baserri itxura; Sagastizabal edo Potxoenea izenez ezagunagoa den etxeak eta Aretak, adibidez. Gaur egun, nekazaritza jardueretan aritzen diren hamar bat baserri besterik ez ditugu.

Aizpuruetxeberri

Zaldibirako bidean dago, errepide bazterrean, Orkli lantegia baino aurreraxeago.



Arramendi Barrena Arramendi Goena

Inguruan ukuluak dituzte behi eta ardientzat. Ardi gazta ere egiten dute bertan.



Arantzegi

Beharbada, herritik urrutien dagoena. San Jose zahar egoitzatik gora joaten da bertara. Garai batean, artzaina bizi zen bertan eta artalde handia zuen.



Zabale

San Joan auzoan dago eta seguruenik Ordiziako baserri zaharrena dugu. Garai batean, jauntxoena zen eta lau dorre zituen; gaur egun bakarra dauka.



San Isidro Granja

Goierrri eskolaren ondoan dago eta bertan taberna dago. Baserriaren horma batean San Isidoren —nekazariaren zaindaria— irudia ikus daiteke.



Otatza

San Joan auzoan dago, hileritik gertu. Ardi gazta egiten dute.



Usunbillaga

Zaldibirako bidean dago, Orkli lantegiaren pare-parean. Baserri inguruan lore eta landare ederrak ikusten dira.



Oianguren Txiki

Oiangu parketik hurbil dago eta bertan, besteak beste, zakurtegi bat dago.



Mariarats

Izen bereko erreka, auzoa, zubia eta etxea ditugu. Horrexegatik, garai batean inguru horri Mariaratsaldea esaten zitzaien. Lehen errota garrantzitsua egon zen hemen.





Nekazariok
baserrian makina bat lan egin
behar izaten dugu, baina ba al
dakizu baserrian zein lan egin
ohi diren?


Kattalin
ikasten ari da...



BASERRIKO LANAK

BIKOTEAK OSATU

Lotu itzazu bi zutabeetako
hitzak eta egin bikoteak.
Esaldiren bat sortuko
bazenu, askoz hobeto!



- BELARRA
- BARAZKIAK
- UKUILUA
- BEHIAK
- EGURRA
- ARRAUTZAK
- ARTOA
- GARIA
- GARBITU
- JETZI
- TXIKITU
- BARATZEAN LANDATU
- EREIN
- EHO
- METATU
- BILDU



LETRA-ZOPA

Baserrian lan egiteko lanabes
egokiak behar izaten dira. Ea
zenbat aurkitzen dituzun
hizki zopa honetan.



Z	S	A	R	D	E	A	Z	A	J	B	A
I	O	E	S	K	U	A	R	E	A	N	P
T	I	L	Ñ	B	Q	E	U	A	J	I	P
A	I	T	Z	U	R	R	A	R	R	U	A
Z	U	L	A	T	R	E	A	A	A	Z	L
L	A	I	A	F	U	I	E	S	E	G	A
E	N	A	B	C	M	E	T	K	J	U	A
A	W	B	T	A	I	Z	K	O	R	A	Z
P	K	A	E	K	K	G	U	R	D	I	A

BASERRIKO ANIMALIAK

FAMILIAK OSATU



Gure baserrietan animalia dezente daude. Gehienek arra, eme edo kume izan, izen bera dute: zakurra, katua, astoa... Beste batzuek, ordea, izen desberdina dute. Sailkatuko al zenituzke ondorengoak familiak?

AKERRA

ZEZENA

AHARIA

ARDIA

BEHORRA

ZALDIA

ARRA	EMEA	KUMEA
	BEHIA	
		MOXALA
OILARRA		
	AHUNTZA	
		ARKUMEA


TXAHALA

ANTXUMEA

TXITA

OILOA

BERTAKO ARRAZAK



Pottoka. Poni itxurako zaldi txikia.

Baserrietan lanerako erabili izan da. Gure mendietan aspaldi-aspalditik bizi izan dira; Santimamiñe eta Ekaingo kobazuloetako margoetan pottoken irudiak ikus daitezke.




BETIZUA ETA POTTOKA
BERTAKO ARRAZAKO ANIMALIAK DITUGU.
EZAGUTZEN AL DUZU BESTERIK?



Betizua.

Behi izua.

Euskal Herriko arraza. Esan ohi da garai batean Mari jainkosaren kobazuloak zaintzen zituela.



1



2



3



4

O I A N G U



LOTURAK

EGIN

Argazki guztiak
Joseba A. Agirre
ABIO-k
eginak dira.

Demagun laukietan hesituta dauden testutxook goiko irudi ederren argazki-oinak direla. Baina zein zeinena? Idatzi erantzuna lauki bakoitzeko borobil zurian. Ui, baina laukiak gehiago dira argazkiak baino....

Oianguren hitzaren esanahia basoeder da: oihan eta guren (eder). Garai batean Oiangualdea deitzen zitzaien, Oiangurenandi (parkean dagoen etxea) eta Oianguren Txiki baserriak bertan izaki.



Animalia espezie ugari dago Oiangun.
Ugaztunak: erbinudea, trikua, lepazuria...
Hegaztiak: urubia, okil berdea, kukua, zozoa...
Narrastiak: musker berdea, zirauna...
Anfibioak: ur-igel arrunta, apo arrunta, baso-igel gorria...
Hainbat espezie mehatxupean bizi da. Esaterako, muxar grisa eta Eskulapioren sugea.



Oiangun baso mistoa osatzen duten zuhaitz mota dezente ere: haltzak, urkiak, lizarrak...



Oianguko baso garrantzitsuena hariztia da. Udazkenean, fruitu eta hosto ugari aurki daitezke lurrean eta mahai gainetan.



5



6

Argazkietan ikusi ahal izan duzun bezala, Oiangu paraje zoragarria da, edozein txunditzeko modukoa. Bertara joan eta argazki bitxi gehiago aterako al ditugu?

Errekastoak eta urmaelak edo putzuak oso baliotsuak dira, hezeguneak direlako. Alegia, ekosistema aberats, bitxi eta hauskorak.



Oianguren non dagoen eta zein handia den kontuan hartuta, aisialdirako gune paregabea izan da beti goierritarrentzat.



Zein ederra hemengo paisaia! Aizkorri, Aralar, Murumendi eta Usurbe ikusten dira. Gainera, Oriako Terraza Esekia daukagu hemen.



PROPOSATU

Ateratako argazkiekin eta zenbait argibide idatzirekin, egingo al dugu orritxo bat beste herri bateko umeek Oiangu ezagutu dezaten? Informazio orri erakargarria egin beharko genuke, Interneten zintzilikatzeko edo turismo bulegoan uzteko...




INDUSTRIA ETA ZERBITZUAK

XX. MENDE
HASIERAN,
ORDIZIAN BAZIREN
ZENBAIT LANTEGI
ERTAIN ETA TXIKI:
LAU ALTZARI
FABRIKA,
ZURGINTZAKO
ETA EBANISTERIA
TAILER BAR,
XABOI FABRIKA,
GASEOSA EGITEKO
FABRIKA, LIKORE
FABRIKA BAT,
ERROSKILAK
EGITEKO BESTE
LANTEGITXO
BAT...
ZER GEHIAGO
OTE ZEGOEN?



1934ko *Santa Ana* aldizkarian, garai hartan herrian zeuden hainbat lantegi eta dendaren publizitatea ageri da. Irakurri ondoren, adierazi orduko lantegi eta zerbitzu horietako batzuen izenak, eta bertan zer eskaintzen ote zuten.



Izena	Zer egiten edo saltzen ote zuten?

- Honezkero konturatuko zinen gaztelania hutsean daudela. Zergatik ote daude hala?



● Bada aldizkarian idatzi bat euskaraz dagoena. Orain dela 80 urte idatzia da eta ezagun da euskarerekiko kezka. Baina Kattalinek esan dit ez dagoela ondo idatzita, berak euskaraz beste modu batera idazten duela. Zuk nola idatziko zenuke?



Ta aldizkari edo errebista onek, ainbat gauza erakusten dizuelarik, ez degu, ixildu nai, bañen miñ au: Ez dala guk nai genduken, euskelduna, ez daukala, guk nai genduken, eusko usaya”



Gaur egun, nekazaritza eta abeltzaintza hutsaren parekoak dira Ordizian, biztanleria aktiboaren %0,7 besterik ez baita ari jarduera horietan. Herritar gehienek industrian eta zerbitzuetan dihardute lanean.




IKERTU

- Zein lanbide izan zuten zuen aitona-amonek?
- Zuen gurasoen artean zenbatek egiten du lan industrian, zenbatek zerbitzuetan eta zenbatek nekazaritzan?

Datuak bildu eta gogoeta egin taldean.


LANBIDEAK

Ordiziako biztanleria okupatuaren bilakaera portzentuala, sektore ekonomikoaren arabera (%)



Iturria: 1975eko biztanleria errolda eta Eustat.

Ordiziako biztanleria aktiboaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: 1975eko biztanleria errolda eta Eustat.

LANTEGIAK

Ordizian lantegi handi bat dugu, Zaldibirako bidean dagoena. Ba al dakizu izena?

Gainerako lantegi gehienak industriaguneetan daude. Lantegi hauek txikiak edo ertainak dira. Ba al dakizu Ordizian zenbat industriagune dauden? Eta zein izen duten? Eta bertan aurkitzen den lantegiren baten izena?

ZERBITZUAK

Gure herrian zerbitzu asko ditugu. Honoko hauek kokatuko al zenituzke taulan?

Barrena kultur etxea

San Jose zahar egoitza

Osasun zentroa

Barrenako parkea

Hizkuntza Eskola Ofiziala

Altamirako futbol zelaia

D'elikatuz Interpretazio Zentroa

Tren geltokia

Elkarteak

 OSASUNA	 KIROLA	 AISIA
 HEZKUNTZA	 GARRAIOA	 KULTURA

Zure ustez, zer beste zerbitzu eskaintzen ditu herriak?

.....

.....

.....



AUZOAK



XX. mendearen hasieran, lantegiak ugaritzeak biztanle kopurua nabarmen igotzea ekarri zuen; izan ere, jendea lana zegoen lekuetara etortzen zen. Ordiziak hazi beharra zeukan eta jendearentzako etxebizitzak eraiki egin behar. Hortaz, lehen soro eta belardi izandako lekuetan auzoak sortu ziren.

XX. mendeko 60. hamarkadan populazioaren hazkunde handia gertatu zen eta Oria ibaiaren eskuin aldean zenbait auzo sortu ziren: Altamira, Otegienea eta Buztuntza. Ezagutzen al dituzu auzo horiek?

Altamira, Otegienea eta Buztuntza, 60. hamarkadan.



Ze desberdintasun dago bi argazkien artean? Ea zenbat aurkitzen dituzun!

Altamira, Otegienea eta Buztuntza, gaur egun





Jakina da gure auzoek ez dutela beti gaur egun duten itxura izan, hainbat aldaketaren kokaleku gertatu direla. Horra, esate baterako, Kattalinek amaren auzoari buruz kontatzen diguna.



Nire amaren auzoa

eskaileraz inguratua zegoen eta dago. Igo eta jaitsi. Bertakoak hala ibili izan dira bizitza osoan. Trenbideak ere, trabesak zeharkatua, eskailera horizontal bat dirudi eta trenak egun osoan dabilta bertan. Atzera eta aurrera. Haien tirriki-tarraka eta zalaparta entzun arren, dagoeneko ohituta gaude. Edo ez: zarataren erruz telebistako filma entzun ezinik geratzen garenean, orduan pentsatzen dut ez gaudela ohituta. Gure etxean sardexka edo tenedoreari tnedorea esaten diogu...

Nire amaren auzoko umeak lehen luzaroan egoten ziren kalean. Jolasean edo bihurrikeriatan. Eta, neguan, jolasean izerditu eta gero, Garmendianeko okindegira hurbiltzen ziren. Hormaren bestaldean labea egon, eta bizkarra hormara hurbilduta, goxo-goxo egoten ziren. Kontu-kontari. Baina trenbidearen lerro bera segituz, ubide bat ere bazegoen, ur zikinak eramaten zituena, eta egun batean ume bat erori zen... Gizon bat balkoia pintatzen ari zen eta hara non ikusi duen eskutxo bat, larri, astinduka, uretan sartu eta atera dabilena. Gizona tximista baino azkarrago jaitsi zen eta uretatik umea bizirik ateratzea lortu zuen. Mutikotxoaren ama Andaluziakoa zen, lan bila etorritakoa, emakume xumea, eta, esker onez, botila bat olio eskaini zion gizonari: oliba olio on-ona.

Nire amaren auzoak beti esnagailu bat izan du. CAF-eko adarra. Tuuuuu. Horrek markatzen zituen langile jendearen joan-etorri presatiak. Baina urteetan ke adarra ere atera izan zaio. Umeek pentsatzen zuten bertan, trenen orde, hodeiak egiten zirela. Hodei beltzak. Baina, egin, trenak egin izan dira, mundu osorako trenak, ttuu-ttuu!

Nire amaren auzoan bada Kale Berri izeneko kale zahar bat. Bertan, urteetan, Ugaldetarrenean limonada egin izan zen, eta gaur egun edariak saltzen jarraitzen dute. Denda txiki asko ere baziren, eta, sobra ere, ez zuten ordutegirik: edozein ordutan egoten ziren zabalik. Baita gaueko hamarretan ere. Eta txiripaz dena itxita egonez gero, bizilagunengana jotzea zenuen. Garai hartan, gainera, atek denbora luzean egoten ziren giltzaz itxi gabe. Hala ere, esnea etxean bertan erosten zen, esnezalea bertaraino joaten baitzen. Gero, esnea dendan erosten hasi ziren. Eta orain ni neroni joaten naiz esne makinara.

Nire amaren oroitzapenik goxoenak, hala ere, festetakoak dira. Bertan oso festa politak egin izan baitira. Danborrada eta guzti. Diskoteka bat ere egon omen zen: Zigor... Eta larunbat gauetan trenen zalapartari autoen burrunbara gehitzen zitzaion, eta jendearen zarata, eta orduan ezin telebista entzun. Baina izozkitegi bat ere bazegoen: Ibañez. Eta, batzuetan, haurrak gominolak enpaketatzen eta laguntzen aritzen ziren gozo batzuen truke. Usain oneko oroitzapenak dira horiek.



**Zein auzo
deskribatu digu
Kattalinek?**

Edozein modutan, nire amaren oroitzapenik hunkigarriena txakur batekin lotuta dago. Auzoan beti txakur bat egoten zen. Kale txakur bat. Eta ama bereziki batekin akordatzen da: Beltxa. Gutxi-asko, denek jaisten zioten jateko zerbait. Eta festa izaten zen txakurkumeak izaten zituenean. Baina orduan ez zioten Lutxi emaginari deitzen. Hala ere, amari injekzioa jarri behar ziotenean, bera ez zen beldur izaten, izan ere Lutxik, lasaitzeko, txakurra eramateko esaten zion. Eta praktikanteak zerbait goxoa ematen zion amari. Eta zerbait goxoa Beltxari. Oso txakurzalea baitzen Lutxi.


Horrenbestez, zein ote da nire amaren auzoaren izena? Asmatuko al zenuke?

Patxi Zubizarreta



Gure herria hazi eta auzo berriak eraiki ziren garaian, espazioa konkistatzen ahalegintzen ari ziren munduko boteretsuenak. Estatuatuarrak ilargira heldu ziren 1969an. Neil Aldin Armstrongek ipini zituen oinak ilargian estreinakoz. Espazio zabalera atera zen lehena, ordea, Yuri Gagarin izan zen, errusiarra.

Hona hemen Yuri Gagarin, espazio zabalera irteko lehen gizakia. Lurra orbitatzen ari da Vostok-1 espazio ontzian. Hemen ikusten ari zaren bidaia liluragarri hau 1961eko apirilaren 12an gertatu zen, orain dela 50 urte pasatsu. Leihotik begira, gure planeta aurrean zuela, hitz gogoangarriak esan zituen Yuri Gagarinek. Ea asmatzen duzun esaldia:



РФГ УВУКЕФЫГТФ,


ЯФШТ ВУЯФПГТ,

ЫГТЕЫШЕГ ПФИУ

Ф И С В У А П Р Ш О Л Д Ъ Т Щ З Й К Ё Е Г М Ц Ч Н Я
А В С D E F G H I J K L M N O P Q R S T U V W X Y Z

BIZTANLERIA


Esan dugun bezala, lantegiak ugaritzeak biztanle kopurua nabarmen haztea ekarri zuen. Izan ere, Espainiako hainbat lurraldetatik, Galiziatik, Extremaduratik edo Andaluziatik, jende asko etorri zen lanera. Biztanleriaren hazkundearen gorakada nabarmena garbi ikus daiteke ondoko grafikoan.



OSATU

Bukatu ezazu beheko grafikoak, ereduari jarraituz. Erabili koadroetako datuak.

URTEA	BIZTANLEAK	URTEA	BIZTANLEAK
1965	8.344	1991	9.325
1970	9.465	2001	8.938
1981	9.724	2011	9.547





Gaur ez bezala, ospitale faltan, ume gehienak etxean jaiotzen ziren emagin baten laguntzarekin. Ordizian, Lutxi entzute handiko emagina izan zen. Baietz zuen etxeko bakarren bat haren laguntzarekin jaioa izan. Galdetu horretaz, eta, bide batez, ea animalia zalea ote zen...

Argazkia:
GEMA ARRUGAETA

LUTXI ZALDUA

Nikolas Lekuona pintorea baino sei urte geroago, 1919an, Xoxone izeneko baserrian jaio zen Lutxi Zaldua. Emakume saiatu eta iaioa, Donostian, Valladoliden eta Madrilen ikasi zuen, eta erizain, praktikante eta podologo izan zen. Horrela atera zuen bizimodua Filipineta kaleko Intsausti Berri etxean.

Aitona Peruk, behin batean, igarkizun hau erabili zuen hartaz hitz egiteko: 'Pipitaki, papataki, zer da goizean lau hankatan ibili, eguerdian tente, eta iluntzean hiru hanka erabiltzen dituen'. Eta nik nekez asmatu nuen gizakia dela, umetan katuka, helduaroan zutika eta zahartzaroan makurka, makila edo makulu baten laguntzarekin dabilena. Aitonak igarkizun hau erabili zuen Lutxi beti lagun hurkoa laguntzeko pronto egoten zelako, txiki, heldu nahiz zahar izan, eta ordiziarrok munduratzeko asko lagundu zuelako.

Hala bada, makina bat haurrek Lutxi bizitzaren lehen unetik beretik izan dute lagun. Emagina oinez, bizikletaz edo autoz ibiltzen zen, 'Haurrek ez baitute erlojurik ekartzen... Gauza haundia da', esaten omen zuen berak, 'umea nola datorren, eta haren negarra sentitzea'. Amona Agedak, horren jakitun, esaten du negarrak gutxitan eragiten duela horrenbeste barre, haur jaio berriaren pozak ezin kabiturik. Lutxik ere esaten omen zuen, estualdiaren betean, erdiminetan, amari izugarritzko lasaitasuna ematen ziola eskutik heltzeak eta ni oso ados nago (beharbada horregatik agertuko dira hainbeste Lekuona pintorearen koadroetan).

Bitxia da, baina emaginak lagundutako haur horiexek gero Lutxirekin berarekin beldurtzen zituzten. Praktikantea izaki, hamaika injekzio eta txerto jarri izan zizkien, eta gurasoek umeak honela beldurtzen zituzten: 'Zopa jaten ez baduzu, Lutxiri deituko diot'. Eta horrek mina ematen omen zion emakumeari: 'Umea aurrez izutzen duzu eta mina haundiagoa izaten da'. Hain zuzen ere ume horiexei laguntzen jarraitu zuen ikastolaren sorreran.



Zer adierazi nahi ote du Nicolas Lekuonaren esku irudi honek? Ba al du zerikusirik irakurri duzunarekin?

PERIKO ELKARRIZKETAK



Amona Ageda, aitona Peru eta Kattalin gaur ere azokara jaitsi dira. Plazan ibili eta gero, lehen Oiangu tabernara joaten ziren bezala, Pottoka-ra sartu dira gaur.



Edandegiko hormak argazkiz josita daudela ohartu da Kattalin eta ezin izan du harridura ezkutatu. Aitona-amonei haiei buruz galdezka hasi zaie.



Txistulai ta danbolin jole hoik ezaunak dittut, Ageda, zea...

Izango ez tittuzu ba! Erretrauko ezkerrekoa Zubizarreta da, nik uste; eta eskubikoa, beiz, Garmendia. Ez al tzea akordatzen?



Garai bateko argazki guztik txuri-beltzen dare.



Pesta ta animo pixkat ez baldin badeu, akabo. Horko hoi Matutinako karrozan bat izango a. Izan e, Matutina ezta gaurko kontue, ez hoixe, 75 bat urte izango ittu.

Argi dau ordiziarrak betitik parrandazalek izan geala

Kantuk e hoixe dio: 'Munduan ez da beti jai, iñoiz tristea ere bai, baña badira mila motibo kantatzeko alai!'



Ta beste argazki horrek, beiz, antzezlan baten itxura auke.

Hoixe ba, ez al tzea akordatzen nola sortu zan talde bat, Bittor Lete gidari zala, antzezlanak-ta euskeraz itten zittuna? Frankon garaien hoi oso zaille zan. Sasoi hartan Etxezarreta esaten geniona, bete itten omen tzuen.

Ba, neskak oker ez panau, Julene Iturriotz ta Pepita Lasa die. Mutilletan bat ezautzen det, Mikel Arrese.


Nei e eskolako antzezlanetan parte hartzea asko gustatzen zait! Argazkikok ezaunek al die?



Horko hoi Montero izango a, noski.

Bai, majiñat karrera iraaazi zittun. Garai hartan gue herrin bazien kirolari onak geo!

Gaur eun e asko dare! Zeozer hartu beharko deu, ala? Ni gosek amorratzen nau!


ASMATU

Bila ezazu argazki zaharren bat, etxean ez bada, interneten. Fotokopiatu, neurrira egokitu, eta propio utzi dugun hutsunean itsatsi ondoren, asma ezazu Kattalin, amona Ageda eta aitona Peruren arteko elkarrizketaren bat.

Saia zaitetz elkarrizketa zati horiek euskara batuan ematen.

LABURBILDUZ

Ikusi dugunez, Ordizia herriak tokia behar izan zuen zabaltzeko eta hainbat jende hartzeko. Ikasteak, ordea, ez du tokirik behar eta geure burua eta ingurua ezagutzen laguntzen digu. Kattalinekin, batzuetan, pentsatzen du lehenengo liburuan teleskopioa erabili genuela Historia zaharrari begiratzeko, urrutira begiratzeko; oraingo honetan prismatikoak erabili ditugula horren zaharrak ez diren kontuak berritzeko; eta hirugarrenean, hirugarrenean gure begiak nahikoa izango dira, edo betaurrekoak, izan ere oraingo historiari erreparatuko diogu, orainaldiari.

LEHEN HALA, ORAIN HOLA, GERO EZ JAKIN NOLA